



**Unibertsitate Politika eta koordinazioko zuzendariaren 2017ko azaroaren 20ko EBAZPENA, 2017/2018ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten eta, haien baldintza fisiko edo psikikoengatik, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntzen deialdia ebazten duena.**

Hezkuntza sailburuaren 2017ko ekainaren 28ko aginduaren bidez diru-laguntzak deitu ziren, 2017/2018ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituzten eta, haien baldintza fisiko edo psikikoengatik, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzera bideratuak.

Aipatutako aginduak II. eranskinaren 10. artikuluan xedatutakoaren babesean eraturako selekzio-batzordeak aurkeztutako eskaerak aztertu eta diru-laguntzen onuradunak selekzionatu ditu.

Horregatik guztiarengatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

#### **EBAZTEN DUT**

Lehena.- Deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten unibertsitate- edo goi irakaskuntzetako ikasleei, i. eranskinean zerrendatzen direnei, eman eta ordaintzea mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraioaren diru-laguntza, HIRUROGEITA HAMAIKA MILA ZORTZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO gutzizko zenbatekoan (71.807,47 €).

Bigarrena.- Zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraiorako diru-laguntza ukatzea II. eranskinean aipatzen den pertsoneri, ez baititu deialdian ezarritako baldintzak betetzen.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinarazteko agindua ematea, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleentzako garraio-gastuak ordaintzera bideratutako diru-laguntza 2017/2018ko ikasturterako eskatu dutenei.

Laugarrena.- Interesatuek gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 20

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA

Fdo/ Izpta.: Miren Artaraz Miñon